



Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

ZAPATA MESPRETXUAREN IKUR, ETA, EPAILEA, EPAITUA

Kultura arabiarrean existitzen den mespretxurik handienetarikoa da pertsona bati zapata bat jaurtitzea. Muntazer al Zaidi kazetari irakiarrek eman zion mundu mailako dimentsioa keinuari, orduko AEBetako presidente George W. Bushi bere zapata jaurti zionean, honek herrialde arabiarra inbaditu zuela-eta. Orduz ge-

roztik, CUPeke David Fernandezi ere ikusi diogu keinua; Rodrigo Rato Bankiako lehendakari ohiari erakutsi zion zapata Kataluniako Legebiltzarrean, eta «gero arte, gangster» esanez agurtu zuen. Azkenekoz iragan astelehenean ikusi ditugu zapatak, Iruñean, Askapena erakunde internazionalistak Estatu espainiarra epaitzeko antolatutako ekimenean. «Ez zara inor euskal militantek eta euskal internazionalismoa epaitzeko, zu zara erruduna», esan zioten Estatu espainiarrari, eta «herrien garaipena sufritzera» kondenatu zuten. Epaila epaitua izan zen, horrenbestez, eta zapatek Estatuko botere faktikoen aurpegiak kolpatu zituzten. E. ARRUTI